

Getxo > MEETING <

Irailaren 27ko Getxo MEETINGa

Bezero gehiago nahi dituzu, edo HOBEAK?

Getxo MEETINGek denboraldi berria estreinatu du

Iragan saioan bizitakoari buruzko gogoeten berri emango dizugu –udazken honetako lehenengoa-. Jakin badakigun arren ezerk ezin duela aldatu Getxo MEETING espedientearen barnean egotea, giltzarrietako batzuk zein diren behintzat jakin ahalko duzu.

Hauek izan ziren gai garrantzitsuetako batzuk:

- Egia da enpresa orok behar duela merkataritza arloari erreparatzea, baina hori ez da nahikoa: ongi pentsatu behar da zer komeni den benetan estrategia komertzialik gabe noraezean ez ibiltzeko. Jarduteko pentsatu.
- Kontsumoko ohitura berriek jarduteko gure ohiko era ezbaian jartzen dute eta, beraz, inoiz baino gehiago, hau bezalako espazioak beharrezkoak dira elkar inspiratzeko; horrenbestez, gure enpresak indartu egingo dira.
- Galdegiozu zeure buruari: Zer da zuretzat bezero HOBEAK izatea? Zure produktuak gehiago kontsumitzen dituzten bezeroak dira? Errepikatzea eragiten duena? Benetan zure zerbitzuak behar eta ezagutzen dituzten pertsonak dira? Kaudimena dutenak? Oso antzeko erantzunak irudituko zaizkizu agian; hala ere, gauza bat edo bestea erantzun, jarraitu beharreko estrategia oso ezberdina da.
- Ideia berriak entzun: Saioan gure kasua talde txikietan partekatzeko aukera izan genuen; horrenbestez, neuronak martxan jartzeko aukera egon zen. Eta benetan ideia oso interesgarriak atera ziren.
- Beste negozio batzuetarako diren “ideiak itzuli”: Ariketa bat egin genuen sortutako ideia batzuen indarra gurera ekarri eta haien atzean dagoena aprobe txatu ahal izateko. Eta, egia esan, ariketa horrekin ondorio oso baliotsuak atera daitezke. Arrazoi hori dela-eta, zure negozioa paregabea izan arren, ziur beste ekimen batzuetan inspiro daitekeela, haien jarduteko erak zure eguneroko martxa hobetzen lagun dezakeelako.

Interesgarria, ezta? Jakin ezazu saioak bi ostegunetik behin egiten direla. Noiz da hurrengo saioa? Zatoz urriaren 11n, 14:30ean, (Bai, kafea eta pintxoak izango dira gosea asetzeko). Ezagutzen duzun norbaitekin etor zaitezke, nahi baduzu. Hori bai, gogoratu Getxolanen izena emateaz.